



## IRULEAK

Garazi Albizua | Olga Carmona  
Aitzinsolasa: Uxue Alberdi

2022  
URRIA

Hiru dira iruleak: Kloto, Lakesis eta Atropos. Beldur-garriak, boteretsuak eta independenteak. Gizakien patuaren jabe eta gidari... baina, hargatik, Lurrean aspaldi ahaztuak.

Asper-asper eginda, Klotok jolas tentagarri bat proposatu die ahizpei: ehuntzeko hariak hartu, eta lurtar baten bizitzan eragingo dute. Lurrean, Dickensen Eguberri kanta ezagunean bezala, Mar gazteak hiru fantasmaren bisita izango du. Ez da Gabon gaua, ordea, eta bisitariak ez diote alegiazko irakaspenik eman nahi; behinola bizi izan ziren emakume esanguratsuak dira: Margaret Fuller, Margarita Nafarroakoa eta Inés Joyes y Blake. Emakume beldur-garriak, boteretsuak eta independenteak, inondik inora ahaztu behar ez genituzkeenak.

Garazi Albizuaren testu iradokitzaileak eta Olga Carmonaren ilustrazio indartsuek gidatuko gaituzte istorio irudimentsu honen bilbean, historia eta fantasia abilezia handiz harilkatuz.

### KOMIKIA

ISBN: **978-84-19319-08-1**  
ORRIALDEAK: **132**  
FORMATUA: **17 x 24**  
PREZIOA: **22,00 €**

- Garazi Albizuaren testu iradokitzaileak eta Olga Carmonaren ilustrazio indartsuek hiru plano eraiki dituzte fantasia eta historia, oraina eta iragana, mitoa eta errealismoa nahastuz.
- Historiako hiru emakume hauek berreskuratu dituzte: Margaret Fuller, Margarita Nafarroakoa eta Inés Joyes y Blake.
- Uxue Alberdi, hitzaurrean: «Fantasiaren eta errealismoaren hariak bilbatuz, orainaldi labur-itsua hedatzen dute Garazi Albizuaren hitzek eta Olga Carmonaren ilustrazio indartsuek. Iruleek umorea, amorrua, lehia eta potentzia jartzen dituzte jokoan. Kloto, Lakesis eta Atropos ez dira ama ongileak, asperdurak daramatza Marren bizitza hankazgoratzera, baina inork ez zuen esan on egiten digun guztia iturri garbitik datorrenik. Usoak baino, beleak maiteago nik».



**OLGA CARMONA PERAL** (1977, La Línea, Cadiz, Espainiako Estatuak). Arte Ederretan lizentziaduna (Granadako Unibertsitatea) da, eta Ilustrazio Zientifikoa graduondokoa (UPV/EHU) egin zuen. 2004an hasi zen komikiak argitaratzen, eta orduetik autore oso jardun izan da, nahiz eta hainbat gidolarirekin ere kolaboratu duen txandaka. Hauek dira argitaratu dituen zenbait lan: *Lady Enigma* (Cósmica, Aces Weekly), *Comando malva* (Dos bigotes), *Normal* (Dibbuku), *Salvando las distancias* (Ong Colectivo Milenta Muyeres), *50 Años no es nada* (Dibbuku eta Aleta Ediciones), *Probabilidades* (Recerca Editorial). Irudigile gisa, Santillana, Edinumen, Vicens Vives, MacMillan eta Oxford University Press argitaletxeetarako eta El País Semanal aldizkarrirako lanak egin ditu, besteak beste. [olgacarmonaperal.blogspot.com](mailto:olgacarmonaperal.blogspot.com) (@olga\_CPeral)



**Garazi Albizua Castelao** (1985, Santurtzi, Bizkaia, Euskal Herria). Diseinatzaile grafikoa, idazlea eta komikigilea da. Hauek dira argitaratu dituen lanetako batzuk: *Lara de Altopico* (2021, Apache Editorial), *Lea ipurterrea* (2021, Apache Editorial), *Geun* (2019, Denonartean), *Izadia* (2018, Denonartean), *Nola egiten dute dortokek?* (2015, Denonartean) eta *Kemena* (2017, Denonartean). Bizkaia Irratiko «Irrakurrerian» irratsaioan esatari dabil, eta EIEko lantaldearen parte da.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | [info@txalaparta.eus](mailto:info@txalaparta.eus) [www.txalaparta.eus](http://www.txalaparta.eus)